

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Xabier: Bere ardura, furgonetarekin etxebizitzetara joatea izango da eta eskatutako atearen instalazioa egingo du. Lehenengo instalazio hauek Gipuzkoa, Bizkaia, Araba eta Nafarroan egingo dira eta handitzen garen heinean (lankide gehiago eta salketa gehiago eginez) penintsula osora zabalduko gara.

Ekain: Bere ardura produktua zabaltzea izango da, hau da, aseguru enprekin edota eraikuntza enprekin hitz egingo luke, gure produktua saltzeko eta zabaltzeko. Adibidez; "Securitas Direct"-ekin hitz egin eta beraien tarifa batean gure atea sartzea edota eraikuntza enpresa batekin hitz egin eta bloke berri bat egiten dutenean Imanman atea ipintzea(segurtasun handiko etxeak bihurtzeko).



Aitor: Bere ardura enpresan egongo da, atearen eraikuntza errebisatuko du eta enpresak edo jendeak egiten dituen eskaintzen paketeak egingo ditu. Adibidez, eraikuntza enpresa batek 30 ate eskatzen baditu, bera izango da langileei esaten diena eta geroago ate horiek enpaketatu, enumeratu eta ordenatzen duena.

Manex: Bere ardura buruzagi antzeko batena izango da, hau da, atal edo sekzio guztiak errebisatzea izango da. Bera izango da dena kontrolatzen duena eta dena ondo doala kontrolatuko du. Gainera, bezeroei arreta egiteaz arduratuko da, hauei produktu ezberdinak erakutsiaz eta hauen aurrekontuak eginaz.